

**SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO ONTZI  
ANITZETARAKO EDUKIONTZIETATIK LANDARE-OLIO  
ERABILIA GAIKA BILTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIO  
BEREZIARI BURUZKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN ORRIA**

**I. TITULUA. ALDERDI OROKORRAK**

**1.- XEDEA**

Orri honen xedea San Markoko Mankomunitaterako edukiontzien bitartez landare-olio-erabiliak gaika bil daitezen zerbitzua kontratatzeko oinarritzat hartuko diren zenbait baldintza tekniko azaltzea da.

Ustiapena Baldintza Teknikoei buruzko Agiri honetan xedatutakoari eta lehiaketaren xede den zerbitzua esleitzeko kontratuaren bidez zehaztutakoari zorrozki erreparatuz gauzatuko da.

**2.- LURRALDE-EREMUA**

Orri honetan definitutako lanak San Markoko Mankomunitatearen lurralde-eremuko hurrengo udalerrietan eskainiko dira:

- Errenteria
- Lasarte-Oria
- Lezo
- Oiartzun
- Pasaia
- Urnieta

Etorkizunean zerbitzua Mankomunitateko kide diren beste udalerrri batzuetara zabaltzea ez da baztertzen.

## **II. TITULUA. LEHIAKETAREN XEDE DIREN LANAK EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOAK ETA HORIEN DESKRIBAPENA**

### **3.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA**

Landare-olio erabilien gaikako bilketa-zerbitzuan herritarrek xede horretarako herri-bidean instalatuak dauden edukiontzietan botatzen duten materiala biltzetik, berreskuratze-zentrorra garraiatu eta balio-emaile baimenduari eman eta bildutako materialari balioa ematera arteko eragiketa guztiak sartuko dira. Berarekin bioerregai (biodiesela) fabrikatuko da edo indarreko araudiak arautu eta baimentzen duen beste helburu batera bideratuko da. Horrez gain, balioa ematen ez zaien hondakinak, eragiketa horietan sor daitezkeenak, behar bezala kudeatuko dira.

Zerbitzu honi atxikita, esleipendunak edo kontratistak bilketarekin batera doazen beste lan batzuk garatu beharko ditu, hala nola, hala badagokio, edukiontziak, jarri, ordezkatu eta garbitzea, mantentze-lanak egitea eta Agirian zehar zehaztuko diren beste lan batzuk.

### **4.- JARDUERA-IRIZPIDEAK ETA ZERBITZUA GAUZATZEKO MODUA**

Enpresa eskaintzaileari dagokio proposatutako zerbitzua egiteko sistematik eraginkorrenak proposatzea. Zehatz-mehatz definituko dute zerbitzuaren antolaketa-proiektua: ibilbideak, ibilgailuak eta langileak.

#### **4.1.- Bilketaren modalitatea.**

Landare-olio erabilia zamalanetarako behar bezala moldatu eta ekipatutako industria-ibilgailuen bitartez bilduko da eta gutxienez langile bat izango da.

Oro har, bilketako langileek ibilgailua edukiontziaren inguruan aparkatuko dute, pertsonen eta ibilgailuen ohiko iragaitea eragotzi gabe. Gainera, segurtasun-neurriak hartu eta zorrozki behar diren geldialdi eta maniobrak burutuko dituzte.

Barneko metalezko upelera iristeko edukiontziaren atea irekiko dute, bertan baitaude ontziak olioarekin. Segurtasun-haga kendu, upela atera eta horren ordez beste bat garbia eta hutsa jarriko dute. Amaitzeko, segurtasun-haga berriz jarri eta atea giltzarrapoarekin itxiko dute.

#### **4.2.- Erabiltzaileen eta edukiontzien kopurua nahiz bildu beharreko hondakinen kantitatea.**

Zerbitzua eskaini behar den erabiltzaileen eremua San Markoko Mankomunitateko kide diren udalerrietako biztanleen multzoa da, bilketari atxiki zaizkion udalerriak kontuan hartuta. Aipatu biztanleak gutxi gorabehera 85.000 dira.

Gaur egun Mankomunitatean 57 edukiontzi daude jarriak, I. eranskinean eransten den zerrendaren arabera.

Modu osagarrian, kontratuaren indarraldian San Markoko Mankomunitateak edukiontzien hasierako hornidura gehi dezake, kontratuaren prezioa garestitu gabe.

II. eranskinean zerbitzu honetan bildutako landare-olioen kantitateari buruzko historia eransten da, baina gutxi gorabeherakoa da.

#### **4.3.- Bilketaren maiztasuna eta ordutegiak.**

Hasieran, gutxienez edukiontziko asteko hustuketa banaren maiztasuna zehazten da. Hala eta guztiz ere, esleipendunak bakoitzaren errealitatearekiko moldatu beharko du, une oro edukiontziak guztizko edukieraren % 75a gainditzen ez duela ziurtatzeko. Ildo horri jarraiki, betiere edukieraren % 25a mantenduko da, erabiltzaileak erabiltzen jarraitu ahal izateko.

Hala, zerbitzua hasi ondoren, esleipendunak hiru hilabetetik beherako epean Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei proposatutako edukiontzi bakoitzari buruz bilketaren maiztasunak, egunak eta ordutegiak jakinaraziko dizkie, une bakoitzean betetze-mailen eta egiazko erabileraren arabera.

Esleipendunak etengabe jarraitu beharko du edukiontzien betetze-maila kontratuaren indarraldian zehar, hustuketa-maiztasuna betetze-abiadurari moldatzeko. Aurrekoari eutsiz, beharrezkoa balitz, maiztasunak gehitu beharko lituzke, asetze-egoerak saihestu eta edukiontzietan biltegiaren edukiera etengabe eskura mantentzeko, arestian aipatu den bezala. Nolanahi ere, horrek ez du kontratuaren prezioa garestituko.

Esleipendunak une oro Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei maiztasun-hazkuntzen eta bilketan izan daitezkeen aldaketen berri emango die.

Bestalde, zerbitzu honetan erregulartasuna beharrezkoa denez, eskaintzaileek berariaz zehaztu beharko dute jaiegunetan programatutako bilketetarako konponbidea.

#### **4.4.- Bilketa-lanak gauzatzea.**

Bilketa-taldeak landare-olioen hondakinen edukiontziak zehaztutako bilketa-egutegiarekin bat hustuko dituzte, husteko unean edukiontzi bakoitzak izan dezakeen huste-maila baztertuta.

Era berean, bilketa-taldeak edozein hondakin kenduko du, edozein arrazoiengatik edukiontzien inguruan badago, bai lurrian, bai horien gainean. Landare-olioa bada, edukiontzian botatako gainerako hondakinekin batera jasoko da. Beste edozein hondakin izanez gero, modu berean kenduko da eta dagokion edukiontzirik hurbilenean botako da.

Edukiontziak manipulatzeko eragiketetan herri-bidean isurtzen diren hondakinak bilketa-taldea osatzen duten langileek berehala erretiratuko dituzte. Hautabidezko beste modu batzuk erabil daitezke, bide-garbitetaren udal-zerbitzuak nahasiak ez badaude.

Bilketa-ibilgailuak ustekabeen edozein likido edo hondakin solido isurtzen badu, esleipendunak kaltetutako zona guztia oso-osorik garbitu beharko du.

Bestetik, esleipendunaren erantzukizuna da bilketarako erabiltzen diren metalezko upelak sakonki garbitzea. Hala, erabiltzen diren bakoitzean garbituko dira eta, xede horrez, presiozko garbiketa-sistemez eta produktu detergente eta koipegabetzaile egokiez baliatuko da.

#### **4.5.- Hondakinak garraiatzea. Bildutako materiala berreskuratu, birziklatu eta deuseztatzea.**

Bildutako landare-olioa aldeztu aurretiko moldapen-plantara edo balioa emateko plantara garraiatu eta bertan deskargatuko da, eskaintzak proposatutakoaren arabera. Ildo horri jarraiki, erabat debekatuta dago materiala beste puntu batean deskargatzea, Mankomunitateak berriaz baimentzen duenean izan ezik.

Erabiltzaileek edukiontzietan botatako landare-olioaren jabetza San Markoko Mankomunitatearena da. Hala ere, jabetza esleipendunari lagako zaio zerbitzuaren kudeaketa orokorraren barruan.

Bildutako material guztia, beraz, esleipendunaren jabetzapean geldituko da eta berreskuratze- nahiz birziklatze-prozesuan sor daitezkeen betebeharrak, eskubideak eta erantzukizunak bere gain hartuko ditu. Kudeaketa ingurumenaren ikuspegitik modu zuzenean gauzatu beharko da, 22/2011 Legeak, uztailearen 28koak, hondakin eta lurzoru poluituei buruzkoak, eta gainerako ingurumen-araudiak xedatzen duen lehentasunezko ordenarekin bat.

Eskaintzetan bildutako materialen kasuan aurrez ikusten den kudeaketaren deskribapen zehatza sartuko da. Hala, olioari balioa emateko kudeatzaile baimendua adieraziko da eta

aurrez ikusitako baldintzekin adostasun-akordioa aurkeztu ere bai. Era berean, esleipendunaren betebeharra da etxeko ontziak, herritarrek olioa edukiontzietan botatzeko erabiltzen dituztenak, hustu eta birziklatzea. Aurkeztutako eskaintzan ontziak birziklatzeko konponbidea definituko dute.

#### **4.6- Instalatutako edukiontzien ezaugarriak.**

San Markoko Mankomunitatea zerbitzua ezartzeko edukiontzien horniduraz arduratuko da. Halaber, hasierako erreserba bezala esleipendunaren eskura kopuru txikia jarriko du.

Edukiontziez Manufacturas Metálicas Madrileñas, S.L. enpresak hornitu du eta hona hemen ezaugarri tekniko nagusiak:

- Edukiontzia bereziki diseinatua dago erabiltzaileak bere etxean botilan sartu duen landare-olioa edozein ontzi berrerabilitan bota ahal izateko, gutxi gorabehera 5 litroko edukiera arte.
- Bi elementu ditu eta biak metalezkoak dira. Kanpoko armazoa eta barneko upel edo ontzi estankoa, atera daitekeena, ditu.
- Kanpoan 2,5 m<sup>3</sup>-ko edukiontzia, 900 litroko barneko ontziarekin, eskuz husteko moldatua. Dimentsioak:

Luzera:	1.400 mm
Zabalera:	1.050 mm
Altuera:	1.830 mm
- Gorputza ALZ275 hotzean altzairu galvanizatuaren xaflaz fabrikatuta dago eta lodierak 1 eta 1,5 mm bitartekoak dira. Alboetako hormak, goiko estalkia eta egitura xaflazkoak dira eta profilean 1,5 mm-ko lodiera duen egiturarekin sendotuta dago, bai goiko aldean, baita barnealdean ere. Lodiera handiagoko eusleak ditu gorputzean, atean eta lau ertzetan. Hala, angeluar errematxatuak eta, gero, soldatuak erabiltzen dira. Guztiaren ondorioz oso eraikuntza-gorputz sendoa lortzen da.
- Barneko ontziak beroan fabrikatutako upel estanko eta galvanizatua du, oxidazioa saihesteko. Eskuzko tranpola du, deskarga-eragiketetan botilak errazago kentzeko. Manipulatzeko beheko aldean gurpilak ditu, bi birakariak eta finkoak beste biak, mugimenduei erraztasunak eskaintzeko.
- Edukiontzia gorpuzari dagokion beheko aldeak hondo bikoitza du, herri-bidean beharrezkoak ez diren isurketak saihesteko. Bata edukiontzia zorua osatzen duen estalkia da eta bestea isurketak bildu eta garbitzeko atera daitekeen erretilua.

- Edukiontzia lau pletina angeluzuzenekin eusten da eta edukiontzia zoruan finkatzeko zuloa dute.
- Kanpoko armazoiak barneko upela ateratzeko atea du. Segurtasun-sarrailaz hornituta dago. Gainera, gorputzaren barruan segurtasun-haga du giltzarrapoz hornituta, atea irekiz gero, barneko upela ateratzea saihestu edo zailtzeko. Beraz, itxitura bikoitza da.
- Zorutik 1.450 mm-ra 300 mm-ko zuloekin bi aho ditu eta, ondorioz, edozein etxeko ontzi itxi bota daiteke. Erraz ireki daitezkeen bi tranpol eraisgarri ditu. Horiek jatorrizko posizioa itzultzen dira eta xaflaz fabrikatuak daude.
- Edukiontziak labean 220 °C-ra margotu dira bi mikrako gutxieneko lodierarekin. Galvanizaturako pintura berezia dute, aire zabalean egoteko iraunkorra eta izpi ultramoreen ekintzaren aurrean kolorearen intentsitatea mantentzeko egonkortua.

Herri-bidean kokatuak egotearen, herritarrek erabiltzearen eta ustiapen-lanekin zerikusia duten eragiketen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak kontratistaren kargura izango dira.

Kontratistak edukiontziak garbitasun- eta kontserbazio-egoera onean mantendu beharko ditu.

Kontratua amaitzen denean, kontratistak San Markoko Mankomunitateari bere eskura jarritako edukiontziak hasieran jasotako egoera berean itzuliko dizkio, ohiko erabilerarengatik eta denbora igarotzeagatik kalteak kontuan hartuta.

Kontratistak edukiontziak behar bezala mantendu eta kontserbatzen dituela bermatzeko, kontratua edo luzapenak amaitu baino hiru hilabete lehenago Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek ikuskaritza teknikoa burutuko dute. Ildo horri jarraiki, esleipendunaren kargura izango dira konponketak eta ordezkapenak, akatsak hautematen badira eta horiek erabilera eta mantentze-lan egokien ondoriozko ohiko kaltea gainditzen badute.

Kontratuaren indarraldi osoa amaitzen denean, esleipendunak Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei edukiontzi eta ontzien zerrenda eguneratua, erreserbakoak barne, entregatuko die.

#### **4.7.- Edukiontziak jarri eta beste toki batzuetan kokatzea eta pareko bestelako lanak.**

Kontratistak nahitaez hurrengo lanak egin beharko ditu:

- a) Instalaturako edukiontziak beste kokagune batean jarri edo kendu eta, ondoren, jartzea, arrazoia justifikatua bada eta Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek nahikoa aurrerapenez jakinarazten badute.
- b) Kontratuan zehar eta luzapenetan, Mankomunitateak eskatzen dizkion edukiontzi osagarriak instalatzea.
- c) Antzeko beste lan batzuk, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek agintzen badituzte.

Lanak gauzatzeko epea Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek zehaztutakoa izango da.

#### **4.8.- Edukiontziak garbitu eta mantentzea.**

Edukiontzi guztien egoera higieniko-sanitario ezin hobea eta itxura estetiko ona bermatzeko, esleipendunak landare-olio erabiliak gaika biltzeko edukiontzi guztiak, baita inguruko zonak ere zehatz-mehatz garbitu eta desinfektatu beharko ditu. Hala, ager daitezkeen orbanak garbituko ditu.

Garbiketa- eta higiene-eragiketa amaitutakoan, edukiontziaren eta inguruen azkeneko egoerak ez du zikinkeriarik izango.

Gutxienez bi hilez behin egin beharko da garbiketa. Hori alde batera utzita, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek eskatu ondoren, esleipendunak edukiontzi garbiketa puntualak egin beharko ditu, bi garbiketa-aldiren artean oso zikinak badaude. Gauza bera egingo du inguruan ustekabeko isurketak badaude. Dena delakoa, ez da kontratuaren prezioa garestituko.

Garbiketa-eragiketak lehenetsuz egunez egingo dira, ez 8:00ak baino lehen, ezta 22:00ak baino beranduago ere, biztanleekiko eragozpen erantsiak saihesteko.

Bestalde, esleipendunak prebentziozko mantentze-lan guztiak, baita zuzentzaileak ere, antolatu eta gauzatu beharko ditu, edukiontziak erabilera-egoera ezin hobean mantentzeko beharreak badira.

Prebentziozko mantentze-lanetarako programa definituko da eta eragiketa guztiak zehaztuko dira: ikuskaritza-aldiak, kontrolatu beharreko puntuak, etab.

Sortutako beharren ondorioz, programatu gabeko mantentze-lan zuzentzaileen kasuan, berehala ekingo zaie eta matxura hauteman edo jakinarazten denetik ahalik eta denborarik laburrenean gauzatuko dira.

Mantentze-lanak berme osoz burutzeko, kontratistak instalatutako edukiontziei dagokienez ordezeko piezen stock nahikoa izango du.

Mantentze-lanak desegokiak badira, esleipendunak bere gain hartuko ditu izan ditzakeen erantzukizunak. Ildo horri eutsiz, edukiontziak une oro erabilera-baldintza ezin hobeetan daudela eta egoera txarrean daudelako erabiltzaileentzat arrisku erantsiak ez dituztela ziurtatuko du.

Aurreko puntuetan adierazitako baldintza guztiak kontuan hartuta, eskaintzaileek xehetasunez definituko dituzte antolaketaren proiektua, bitartekoak eta langileak. Izan ere, gutxienez hurrengo puntuak garatuko dira:

- ✓ Ibilgailu eta langileei dagokienez, bilketa-ekipoak deskribatzea.
- ✓ Bilketa-ibilbideak, behar bezala justifikatuak, eta hustuko diren edukiontziak.
- ✓ Zerbitzuen egutegia eta ordutegiak.
- ✓ Esleipendunaren instalazio finkoetan eskura dauden erreserba-ibilgailuak eta matxura edo geldialdi programatuen egoeratarako aurrez ikusia dagoen jardueraplana.
- ✓ Edukiontziak jarri, mugitu, garbitu eta mantentzeko ekipoen deskribapena. Upelen garbiketa.
- ✓ Instalazio finkoak eta bildutako oliorako aldeztu aurretiko moldapen- eta biltegitratze-instalazioak deskribatzea.
- ✓ Erabilitako ontzien hustuketa- eta birziklatze-lanak deskribatzea.
- ✓ Erabili beharreko garbiketa-produktuak eta ordezeko piezen stocka deskribatzea.
- ✓ Zerbitzua hobe deskribatzeko beharrezkoak diren datuak.

Halaber, San Markoko Mankomunitateak, zerbitzurako arrazoi interesgarriak direla-eta, eskaintako zerbitzua edota eremua zabaldu edota murrizteko eskubidea gordetzen du.

### **III. TITULUA. LANGILEAK**

#### **5.- LANGILEAK**



Kontratastak Baldintza Teknikoen Orri honetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatzen diren gidalerro eta zehaztapenekin une oro zerbitzua eskaintzeko beharrezko langileak izango ditu.

Zerbitzuburu eta arduradun nagusi bezala kontratuaren alderdi guztietan erabakiak hartzeko nahikoa gaitasuna izango duen pertsona egongo da. Pertsona horrek Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoekin zuzeneko harremana mantenduko du.

Kontratastak une oro kontratuaren xede den zerbitzua eraginkortasunez eskaintzen dela ziurtatzeko eta zenbait gertakizun (besteak beste, bajak gaixotasun edo istripuarengatik, baimenak, sindikatu-lanak, oporrak eta bestelako arrazoi justifikatuak, baita ustekabeko bajak eta absentismoa ere) betetzeko giza baliabideak izango ditu. Langileen absentziak edo bajak kontratastak berehala estaliko ditu.

Aurrekoari erreparatuz, eskaintzaileek beren proposamenetan kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez eskaintzeko langileen aurreikuspen-proposamena eta langileen ordezkapen-plana aurkeztu beharko dituzte.

Zerbitzuen segurtasunerako langile guztiak ezin hobeki identifikatuak egongo dira eta identifikazio-sistemarik eraginkorra proposatu beharko da.

Honako legeak zorrozki beteko dira: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa; 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, prebentzio-zerbitzuei buruzko araudia onartzen duena; 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena; eta gainerako legeria, lanean segurtasun eta osasunarekin zerikusia duena.

Kontratastak Gizarte Segurantzarekin, lanean istripuekin eta PFEZrekin zerikusia duten lan-obligazio guztiak beteko ditu.

San Markoko Mankomunitateak kontratuaren indarraldian, ezta hori bukatzen denean ere, esleipendunaren langileekin ez du lege, lan edo bestelako harremanik izango. Hala, esleipendunaren kargura izango dira lehiaketa honen ondorioz sortutako obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

## **IV. TITULUA. BILKETA-IBILGAILUAK ETA INSTALAZIOAK**

### **6.- IBILGAILUAK.**

Esleipendunak zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren bitarteko materialak eskuratu beharko ditu.

Zerbitzua gauzatzera bideratutako bitarteko materialek une oro lan-plana zorroztasunez bete eta izan daitezkeen ustekabeak konpontzeko nahikoa tarterekin zerbitzuak eskaintzen direla ziurtatuko dute. Material mugikorra zerbitzuen betekizunetarako egokiena izango da. Ildo horri jarraiki, besteak beste bolumena eta pisua bezalako alderdiak kontuan hartuko dira. Xede horrez, kargak manipulatzeko bitarteko mekanikoak izango dituzte eta homologatuak egongo dira.

Modu berean, ibilgailuek garraioaren araudian xedatutako baimenak eta txartelak izango dituzte.

Kontratari atxikitako bitarteko material guztiak San Markoko Mankomunitatearen zerbitzura jarriko dira denbora partzialean, hau da, bakarrik zerbitzua eskaintzen denean.

Eskaintzaileek beren eskaintzetan zerbitzuetan erabiliko duten material mugikorra adieraziko dute. Argi eta garbi azalduko dute zerbitzuak behar bezala eskaintzeko materialtzat eta erreserba-materialtzat (hau da, ohiz zerbitzuan ez dagoena, baina matxuren kasuan edo noizean behingo errefortzuetarako erabiliko dena) jotzen dutena.

Eskaintzaileek zerbitzura bideratutako material guztia deskribatuko dute eta horiek ahalik eta ongien ezagutzeko datuak aurkeztuko dituzte. Bereziki balioetsiko dira ibilgailuen gasen igorpenak eta zaratak murriztera bideratutako neurriak.

Herri-bidean lan egiten duten ibilgailu guztiak ezin hobeki ikusiko dira. Derrigorrezko segurtasun-sistemak izango dituzte, ezin hobeki ikusiko dira eta hobe hautemateko nahiz oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioaren aurrean arriskuak saihesteko seinaleztapen-sistemez hornituko dira.

Eskaintzaileek zerbitzuaren esku jarriko diren instalazioen zerrenda aurkeztu beharko dute, besteak beste, bulegoak, tailerrak, garajeak, biltegiak, etab., areto osagarriak (komunak, aldagelak, etab.) barne, lanean segurtasun eta higienerari buruzko indarreko araudiak xedatutakoarekin bat.

## **V. TITULUA. KONTROL-SISTEMAK ETA BESTE XEDAPEN BATZUK**

### **7.- KONTROL-SISTEMA**

Proposatutako antolaketaren barruan, eskaintzaileek gailu arinak aurrez ikusi beharko dituzte, egindako lanak justifika ditzaten eta kontratatutako zerbitzuaren eta ustiapenarekin zerikusia duen edozein alderdiren gainean behar bezalako kontrolak egin ditzan, San Markoko Mankomunitateak eskatutako datu guztiak garaiz izateko. Gailuak eta sistemak, informatikoak nahiz beste edozein izaeratakoak, Mankomunitateak dituenekiko bateragarriak izango dira.

Gainera, esleipenduna une oro bilketa-zerbitzuen zuzendaritzaren eta Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoen artean komunikazio-sistema arin eta eraginkorra ziurtatzeko bitartekoez hornituko da.

Mankomunitateak Zerbitzu Teknikoen bitartez etengabe ikuskatu eta zainduko du kontratatutako zerbitzua. Hala, edozein unetan eta tokitan egokitzat jotzen dituzten azterketak egin ahal izango dituzte. Egindako ikuskaritzaren arabera, Mankomunitateak agindu eta argibide zehatzak eman ditzake eta kontratistak derrigorrez bete beharko ditu.

Esleipendunak hilabete bakoitzaren lehenengo astean hilabeteko txosten osoa eta zehatza aurkeztu beharko du formatu digitalean, Mankomunitateak etorkizunean garatuko duen plataformarako bateragarriak diren iturri irekietan, hurrengo datuekin: edukiontziko bildutako kopuruak, betetze-mailak, garbiketa eta mantentze-lanen parteak, hautemandako anomaliari buruzko informazioa, gorabeherak, etab. Esleipendunak Mankomunitateari bildutako materialaren kopuruak eta pisuak neurtu, erregistratu eta jakinarazteko ardura hartzen du. Hala, dagozkion frogagiriak aurkeztuko ditu.

Urtero memoria aurkeztu beharko du urte naturala amaitu eta gehienez hilabeteko epean ondorengoekin:

- Berreskuratu eta birziklatutako kopuruei (ontziak barne) dagozkien hileko datuen laburpena. Guztizkoak eta botatze-puntuen araberakoak (azkeneko datua bakarrik bildutako olioari buruzkoa) izango dira horiek.
- Bilketa-puntuen zerrenda eguneratua eta edukiontzi guztien geokokapenarekin fitxategia formatu digitalean. Urteko altak eta bajak adieraziko dira.
- Olioaren eta bildutako beste material batzuen berreskuratze-zikloari buruzko informazio guztia. Fase bakoitzean enpresa kudeatzaileak aipatuko dira eta onarpen-dokumentuak nahiz hondakinak entregatzeari dagozkionak aurkeztuko dira.
- Herritarrei informatu eta kontzientziatzeko garatu diren jardueren laburpena.

Kontratistak edozein unetan San Markoko Mankomunitateak eskatzen dizkion dokumentuak eta, bereziki, gizarte-aseguruei, lan-istripuei, aseguru-polizei, instalazioei eta

materialari buruzkoak erakutsi beharko ditu. Horrez gain, oro har, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzailerik saihestera bideratutako jarduerak ahalbidetuko ditu.

Esleipendunak San Markoko Mankomunitateak zerbitzuari buruz eskatzen dizkion txostenak eta azterketak prestatu beharko ditu.

## **8.- KALTEAK HIRUGARRENEI**

Esleipenduna kontratua gauzatzeko orduan egin behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako edozein kalte edo galeraz arduratuko da. Gainera, lanaren, segurtasun nahiz higiearen eta ibilgailuen zirkulazioaren arloetan indarreko antolamenduak eskatzen dituen aseguruak alde batera utzita edo horiekiko modu osagarrian, eskaintzaileek beren eskaintzetan aseguru-polizen proiektuak aurkeztu beharko dituzte, berariaz aipatuz arrisku-estaldurak, primak, kalte-ordainak eta gainerako alderdiak. Zerbitzuen gorabeherari aurre egiteko izango dira eta Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzailerik saihestuko da.

## **9.- PREZIOA**

Zerbitzuaren kostu osoa, edukiontzien garbiketa eta mantentze-lanak barne, kontratistaren kargura izango da.

San Markoko Mankomunitateak kosturik gabe kontratistari lagako dizkio olioaren kopuru guztiak eta botatzeko erabilitako ontziak. Hala eta guztiz ere, kontratuaren indarraldian San Markoko Mankomunitateari tonako ordaindu beharreko zenbateko ekonomikoa proposa dezake.

Kontratistak lortutako itzulera ekonomikoa kontratuaren hasierako egoerarekiko % 25etik gora gehitu edo murrizten bada merkatuan, kontratazioaren data kontuan hartuta, urteko zenbatekoa proportzio berean alda daiteke, nahiz eta San Markoko Mankomunitateak kontzeptu honengatik ordaintzeko inolako aukerarik ez izan. Mankomunitateak kontratistak eskainitako datuak berraztertu eta ikuskatzeko ahalmena izango du eta, gai horri dagokionez, Mankomunitateak eskatzen dizkion datuak egiaztatu beharko ditu kontratistak berak. Adibide modura, % 28 aldatzen bada, esleipendunak proposatutako kanona %28an aldatuko da ere bai.

Olio erabiliaren balio ekonomikoa asko jaitsiko balitz eta, ondorioz, zerbitzua ekonomiaren ikuspegitik bideraezin bihurtuko balitz, Mankomunitateak idatziz baimendu ostean, kontratistak euskarria publizitatea sartzeko erabili ahal izango du, betiere, besteak beste, genero-berdintasunaren, hizkuntza-araudiaren eta abarren irizpideak errespetatzen baditu.

Horretarako, kontratistak behar bezala justifikatu beharko du bideraezintasuna edo finantzazioaren beharra.

Xede horrez, eskaintzaileek “C” **gutun-azalean** zerbitzua gauzatzeko aurrez ikusitako gastu guztien xehetasuna sartuko dute, Administrazio Baldintzen Orriko 19. oinarrian zehaztutakoari jarraiki.

#### **10.- ZERBITZUARI BURUZKO BESTE GAI BATZUK**

Baliozko objektuak, esleipendunaren kargura dauden langileek aurki ditzaketenak, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoen esku jarriko dira, jabeak direnak egiaztatzen dutenei bueltatzeko.

Hutsegitearengatik edo arduragabekeriarengatik, objektu pertsonalak, besteak beste, giltzak, diru-zorroak, ordulariak, bitxiak, dokumentazioa, etab. nahi gabe edukiontziazen barruan erortzen direnean eta oraindik barruan daudela jakina denean, esleipendunak objektuak berreskuratzeko, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek adierazitako moduan, lankidetzara osoa eskainiko du.

**Donostian, 2015eko maiatzean.**

## ANEXO I ERASKINA

### CONTENEDORES UBICADOS EN LA VIA PUBLICA/HERRI BIDEAN KOKATURIKO EDUKIONTZIAK

EDUKIONTZIA/CONTENEDOR	HERRIA/POBLACION
EDUK-GARBERA(GARBIGUNEA)	DONOSTIA
EDUK-LASARTE-ORIA (ATSOBAKAR)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (BASAUINDI)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (BERASATEGI)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (KULTUR ETXEA)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (HIPODROMOA)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (NAGUSIA PENTSIODUNA)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (ARALAR BURUNTZA PLAZA)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (SAN FRANCISCO)	LASARTE-ORIA
EDUK-LASARTE-ORIA (SASOETA)	LASARTE-ORIA
EDUK-LEZO (ALTAMIRA IGERILEKUAK)	LEZO
EDUK-LEZO (LARRAUN)	LEZO
EDUK-LEZO (ZUBITXO)	LEZO
EDUK-LEZO(DONIBANE A. PILDARAINEKIN)	LEZO
EDUK- OIARTZUN (GARBIGUNEA)	OIARTZUN
EDUK-OIARTZUN (ITURRINE)	OIARTZUN
EDUK-OIARTZUN (BIDEGAINA)	OIARTZUN
EDUK-OIARTZUN (KALE BERRIA)	OIARTZUN
EDUK- PASAI ANTXO (ESKALANTEGI)	PASAI ANTXO
EDUK- PASAI ANTXO (OARSO)	PASAI ANTXO
EDUK- PASAI DONIBANE (BIZKAIA PORTUA)	PASAI DONIBANE
EDUK- PASAI DONIBANE (JUAN XXIII)	PASAI DONIBANE
EDUK- PASAI DONIBANE (MEIPI)	PASAI DONIBANE
EDUK- ERRETERIA (AGUSTINAK)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (AGUSTINAK PRESTAKUNTZA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (ALABERGA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (ZUMARDIA KIOSKOA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (BERAUN AUTOBUSA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (FANDERIA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (GABIERROTA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (GAZTAÑO)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (IZTIETA OIARTZUN)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (LARTZABAL)	ERRETERIA

EDUK- ERRETERIA (MONROY)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (MUSIKA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (OLIBET RENFE)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (PARKE PARROKIA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (PONTIKA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (BIRIBILGUNEA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (SORGINTXULO)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (URBIA ZABAETA)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (URDABURU)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (USANDIZABAL)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (XENPELAR BITERI)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA (YANCI)	ERRETERIA
EDUK- ERRETERIA(ESNABIDE TELEFONICA)	SAN PEDRO ETA TRINTXERPE
EDUK- SAN PEDRO ETA TRINTXERPE ANDONA	SAN PEDRO ETA TRINTXERPE
EDUK- SAN PEDRO ETA TRINTXERPE DANIEL	SAN PEDRO ETA TRINTXERPE
EDUK- SAN PEDRO ETA TRINTXERPE IGLESI	SAN PEDRO ETA TRINTXERPE
EDUK- SAN PEDRO ETA TRINTXERPE MERKATUA	SAN PEDRO ETA TRINTXERPE
EDUK- SAN PEDRO ETA TRINTXERPE RENTE	SAN PEDRO ETA TRINTXERPE
EDUK- SAN PEDRO ETA TRINTXERPE SERAFI	SAN PEDRO ETA TRINTXERPE
EDUK- URNIETA (GELTOKIA)	URNIETA
EDUK- URNIETA (PINTORE POLIKIROLDEGIA)	URNIETA
EDUK- URNIETA (ETXEBERRI PLAZA)	URNIETA
EDUK- URNIETA (SAN JUAN)	URNIETA
EDUK-USURBIL(GARBIGUNEA (ATALLU)	USURBIL

## ANEXO II ERASKINA

### KILOS ANUALES RECOGIDOS/URTEAN JASOTAKO KILOAK

<i>URTEA/AÑO</i>	<i>URTEKO KILOAK/KILOS ANUALES</i>
2014	113.713
2013	91.775
2012	90.695
2011	83.035